

Ahalera - Zer-Nork

❖ Forma:

Indikatiboko **-u-** ⇨ **-(e)zake-**

d- <b>u</b> -t.....	d- <b>ezake</b> -t
dit- <b>u</b> -t.....	dit- <b>zake</b> -t
n- <b>u</b> -en.....	n- <b>ezake</b> -(en)
nit- <b>u</b> -en.....	n- <b>itzake</b> -(en)

	ORAINALDIA		IRAGANA
	<b>arrunta</b> ( <i>puedo</i> )	<b>leuna</b> ( <i>podría</i> )	( <i>podía</i> )
<b>nik</b>	DEZAKET	NEZAKE	NEZAKEEN
<b>zuk</b>	DEZAKEZU	ZENEZAKE	ZENEZAKEEN
<b>hark</b>	DEZAKE	LEZAKE	ZEZAKEEN
<b>guk</b>	DEZAKEGU	GENEZAKE	GENEZAKEEN
<b>zuek</b>	DEZAKEZUE	ZENEZAKETE	ZENEZAKETEN
<b>haiek</b>	DEZAKETE	LEZAKETE	ZEZAKETEN

*Objektua plurala denean*

	ORAINALDIA		IRAGANA
	<b>arrunta</b> ( <i>puedo</i> )	<b>leuna</b> ( <i>podría</i> )	( <i>podía</i> )
<b>nik</b>	DITZAKET	NITZAKE	NITZAKEEN
<b>zuk</b>	DITZAKEZU	ZENITZAKE	ZENITZAKEEN
<b>hark</b>	DITZAKE	LITZAKE	ZITZAKEEN
<b>guk</b>	DITZAKEGU	GENITZAKE	GENITZAKEEN
<b>zuek</b>	DITZAKEZUE	ZENITZAKETE	ZENITZAKETEN
<b>haiek</b>	DITZAKETE	LITZAKETE	ZITZAKETEN

Nahi duzuna ekar **dezakezu**. (*puedes...*)  
 Nahi duzuna ekar **zenezake**. (*puedes/podrías...*)  
 Nahi zenuena ekar **zenezakeen**. (*podías...*)

❖ Erabilera:

- Gogoan izan forma hauek esanahi 'puntuala' dutela eta “**AHAL**” perifrasiaren parekoak direla:

Edozeinek *egin dezake* hori. (cualquiera puede hacer eso)

Edozeinek *egin ahal du* hori.

Denak *har ditzakezu*. (puedes cogerlos todos)

Denak *hartu ahal dituzu*.

Nahi zuena *eraman zezakeen*. (podía llevar lo que quería)

Nahi zuena *eraman ahal zuen*.

- Beste aspektuak *ahal izan* (he podido),  
*ahal izaten* (puedo/suelo poder)  
*ahal izango/ahalko* (podré) perifrasiekin egiten dira.

- Bi orainaldi daude hemen ere, 'arrunta' eta 'leuna':

Edozeinek egin *dezake* hori. (cualquiera puede hacer eso)

Edozeinek egin *lezake* hori. (cualquiera podría hacer eso)

Nahi duzuna egin *dezakezu*. (puedes hacer lo que quieras)

Nahi duzuna egin *zenezake*. (podrías hacer lo que quisieras)